

## 2014ko MUko txapelketan lau fakultateetako ia 250 ikasleek parte hartu dute

2014/02/13

Otsailak 11 zuten MUko fakultate ezberdinetako ikasle kirolariek elkartzeko eguna. Aurretik, fakultate bakoitzak bere txapelketa edo aukeraketa egin du, txapelketa honetan nork hartuko zuen parte zehazteko.

Horrela, otsailak 11, Arrasateko kirol instalazioetan, MUko 250 ikasle inguru elkartu dira, kirol modalitate ezberdinetan jokatzeko. Talde eta kirolari ugari hotzari aurre egiten. Lau fakultateetako ikasleak (HUHEZI, GEP, ENPRESAGINTZA eta BCC) gustora ibili dira, hurrengo faseetarako sailkatuak zeintzuk izango ziren erabakitziako.

Horrela, pilotariak Zabalkiko Pilota Txapelketa Internazionala jokatzeko pasea eskuratu dute, eta beste irabazleek Euskadiko Txapelketa datorren ostegunean Donostian jokatuko dute Deustoko Unibertsitate eta EHU/UPVko ikasleen kontra.

Hemen dituzue emaitzak ikusgai

Eskerrik asko eta zorte on!!!



Saskibaloiko txapelketan parte hartu duten mutilak